

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Alkatetzaren 2023/4126 Dekretuaren laburpena, 2022ko azaroaren 27koa. Horren bidez, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretarako kolektiboak» programaren barruan enplegu-formakuntza proiektuak gauzatuko dituzten erakundeak hautatzeko dirulaguntzak deitu egin da. BDNS (Identif.): 729804.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/729804>).

Lehena. — Erakunde onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta izena emanda badaude Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea), Lanbideren ebazpenak «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua. Lehentasunezko arretarako kolektiboak» programarako ezartzen duenaren arabera. Erakundeek gai izan behar dute gauzatzeko aurkeztuko diren proiektuko edo proiektuetako ekintza guztiak: kontratazioa, formakuntza, orientazioa eta akonpainamendu indibiduala.

Bigarrena. — Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo batzuk hautatzeko prozedura (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean araututako sektorea). Erakunde horiek gauzatuko dituzte Basauriko Udalak aurkeztu eta Lanbidek «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretarako kolektiboak» deialdiaren baitan onartutako programak.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak dekretu honetan bertan onartzen dira, eta batera argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdi honen gutzitiko zenbatekoa 629.258,06 euro da. Finantzaketaren %11,61 Basauriko Udalarri dagokio, eta gainerako %88,39a Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatutako dirulaguntzari.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea zortzi (8) egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita,

Seigarrena. — Justifikazioak aurkezteko epea

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak hilabeteko epea izango du, kontratazioak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, diruz lagundutako jarduerak eta eginiko gastuak bete izanaren justifikazioa aurkezteko, moduluen erregimenaren bidez, kontuan izanik uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. eta 76etik 79era bitarteko artikuluetan jasotakoa.

Basaurin, 2023ko azaroaren 27an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren